

# AURKIBIDEA

<b>HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA .....</b>	<b>4</b>
<b>KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK .....</b>	<b>10</b>
<b>JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA .....</b>	<b>16</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA .....</b>	<b>22</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA .....</b>	<b>28</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA .....</b>	<b>34</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XVII. IGANDEA .....</b>	<b>40</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XVIII. IGANDEA .....</b>	<b>46</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XIX. IGANDEA .....</b>	<b>52</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XX. IGANDEA .....</b>	<b>58</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA .....</b>	<b>64</b>
<b>URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA .....</b>	<b>70</b>
<b>ERANSKINAK:</b>	
<b>I. Hasierako agurra kantuz egiteko doinuak .....</b>	<b>76</b>
<b>II. Damu-otoitzerako beste era batzuk .....</b>	<b>77</b>
<b>III. Fede-aitormena .....</b>	<b>78</b>
<b>IV. Letania-erako esker-otoitzak .....</b>	<b>80</b>
<b>V. Bedeinkapen-eskaria kantuz egiteko doinuak .....</b>	<b>94</b>
<b>VI. Azken-agurra egiteko doinuak .....</b>	<b>95</b>

## Pentekoste ondorengo igandean

# HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, egun honi dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

✠. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Hirutasuna da Kristauon Jainkoa. Horixe esaten dugu Kredoan, Aita, Semea eta Espiritu Santua sinesten ditugula aitortuz. Horixe adierazten dugu egunean zehar, otoitzean nahiz ospakizunean kristauon seinale den gurutzea gugan egitean. Kreatzaile, salbatzaile eta bizi-emaile dugun Jainko horrek markatzen gaitu.

Otoitzari emanak bizi direnak, lekaide eta lekaime kontenplariak gogoratuko ditugu gaur. Eliza osoaren alde, mundu osoaren alde otoitzean bizi dira beraiek. Gaur guk egingo dugu otoitz bereziki beraien alde, Jainkoari eskerrak emanaz.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, zeruko Aita ezagutzera eman diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Espiritu Santua gure bihotz-barrenean jarri diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin elkar maitasunean an bizi zarena: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko Aita, egiaren Hitza den zeure Semea eta Espiritu santutzailea bidali dituzu mundura gizon-emakumeei zeure misterio miragarria agertzeko; egizu, egiazko sinesmena aitortuz, ezagut dezagula betiereko Hirutasunaren aintza eta gurtu dezagula Batasun ahalguztiduna.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Lehenengo irakurraian, Moisesi jarraituz, guztiz Santua den Jainkoa aurkituko dugu, aldi berean «Jainko bihozbera eta errukitsua» dena (1. ir.). Baina bihozbera den Jainko honek «hain maite izan zuen mundua, bere Seme bakarra eman baitzion» (Eb.), eta Jainkoaren Seme gizon eginak Espiritu Santua bidali zigun. Horrela, Meza-hasieran askotan entzun ohi dugun San Pauloren agurra, «Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, Jainko Aitaren maitasuna eta Espiritu Santuaren batasuna» entzutean (2. ir.), Hirutasun guztiz Santuaren aurrean aurkitzen gara, berarekiko dugun esperientzia sakona bizi ahal izateko.

**B urtean** Jainkoak bere burua Moisesi ezagutzera eman zionean, lehenengo irakurraian esaten denez, guztiz Santutzat agertu zitzaion,ugarren erditik hitz eginez eta, aldi berean, oso Hurbileko dena eta bere herriarekin bidean doana (1. ir.). Gizakiek Jesu Kristoren bidez jakin zuten, Jainkoak bazuela Semea, beraren izate berekoa; eta Seme honek Jainko Aitaren seme-alaba eta oinordeko egiten gaituen Espiritu Santua eman zigun (2. ir.). Horregatik, Jesusek agindutakoa betez, Elizak bataiatu egiten ditu fededunak Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean (Eb.).

**C urtean** Apostoluek jakin zuten, Aita, Semea eta Espiritu Santua zela Jainkoa; ezarian-ezarian konturatu ziren Jesus Jauna zela, eta Espirituak beren bihotz-barruan ari zuen jardueraren esperientzia sumatu zuten (2. ir.). Horrela, urratsez urrats, sakontzen joan ziren, Jesusek bere Aitaz hitz egitean, eta egiaren Espiritua bidaliko ziela agintzean, esaten zizkien hitzen esanahia (Eb). Nolanahi ere, Itun Zaharrak prestatua zuen, neurri batean, giza espiritua errebelazio hau jaso ahal izateko, Jainkoaren Jakinduriari pertsona bizia bailitzan entzutera dei egiten baitzuen (1. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIK 3. liburuko 502-508. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Fede-aitormena

*Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## Jainkoaren herriaren otoitza

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Eskerrak emateko ohikunea

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Mundua salbatzera bidali zuen Aitak bere Seme Jesus. Jaunartzean bat egiten dugu Jesusekin eta Espiritu Santuaren baitan bizitzeko indartzen gara. Presta gaitezen Jauna goratuz.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

1. *Salmo-kanta egoki batekin.*
2. *Gorazarre edota kantika batekin.*
3. *Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## **Jaunartzeko ohikunea**

*Gero, zuzendariak, zutik **Gure Aita** otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.*

*Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Jainko gure Jauna, betiereko Hirutasun Santua eta haren Batasun hautsezina aitortu dugu; egizu, hartu dugun sakramentu honetan aurki dezagula gorputz-arimen osasuna.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

### **Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala eta, gaitz guztietatik zaindurik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak, Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak, bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

### **Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

Hirutasun Guztiz Santu ondorengo igandean

## KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL GUZTIZ SANTUAK

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, egun honi dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitarene, eta Semearene, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

✠. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Gorets dezagun Jauna  
eta denok batera bedeinka dezagun haren izena.

*Guztiek erantzungo dute:*

✠. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Kristoren gorputz-odolen jaija dugu gaur eta guk, Eukaristia ospatzerik ez badugu ere, gure Jauna gurtu eta hartzeko aukera izango dugu Jaunaren eguna den Igande honetan.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Aitor ditzagun gure bekatuak misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.



*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, zerutik jaitsi zen Ogia zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, betiko bizia ematen duen Ogia zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure biziaz janaritzen gaituzuna: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko,

sakramentu harrigarri honetan

zeure heriotzaren oroigarria utzi diguzu;

egizu, gorets dezagula fede biziz

zure Gorputz Odolen misterioa,

geuregan zure erospenaren ondorenak suma ditzagun beti.

Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Jainkoak bere herria, basamortuan zehar zebilela, mana emanaz janaritu zueneko gertaeraren kontakizuna dakarkigu lehenengo irakurgaiak (1. ir.). Baina janari hori jateak ez zuen heriotzatik libratzen. Jesus da, izan ere, egiazko ogi bizi-emailea: «Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du», esaten digu (Eb.). San Paulok bigarren irakurgaian esaten du, Jaunaren gorputzean parte hartuz eta haren kalizatik edanez, «gorputz bat» osatzen dutela kristauak beren artean (2. ir.).

**B urtean** B urte honetako irakurgaiak Kristoren odolaren misterioa jartzen digute gogoetarako gaitzat. Ebanjelioan entzuten dugu, Jesusek, ikasleei kopa eskainiz, esaten diela: «Hau nire Odola da, itunaren Odola» (Eb.). Era horretan, Jainkoak Sinai mendian bere herriarekin egindako itunaren sakrifizioa gogorarazten du (1. ir.); baina, aldi beran, Jesusek gurutzean eskainiko zuen sakrifizioaren aipamena egiten. Bigarren irakurgaian, Kristoren sakrifizioaren garrantziaz gogoeta eginez, oroitzapen hau ospatuko dugu, behin berriro, fede biziz (2. ir.).

**C urtean** Bigarren irakurgaiak, gaur, San Paulok 57 urte-hasieran jasotako Eukaristiaren erakuntzaren kontakizuna eskaintzen digu (2. ir.); hau da kristauok dugun Jaunaren jai-otorduko ospakizunaren testigantzarik antzinakoena. Ogien ugalketa da Ebanjelioak dakarkigun gaia; kontakizun honek prestatu egin zituen, zalantzarik gabe, ikasleak, Jesusek bere burua eskaini zueneko eukaristi otorduaren errebelazioa onartzeko (Eb.). Melkisedekak egindako ogi-ardoan oparia ere, Hasiera liburutik hartua, Eukaristiaren eta Kristoren apaizgoaren urrutiko profetia dela esan daiteke (1. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 3.** liburuko 509-517. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Jesusekin bat egitean berak bezala maitatzeko deia jasotzen dugu, besteentzat bizitzeko eta besteenganako eskuzabaltasunez eta onginahiz bizitzeko deia, alegia. Gorets dezagun orain Eukaristiaren misterio handia: Jesus gurekin geratu da beti Ogi Santuan.

*Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jainkoak, Espiritu Santuaren bidez, bere seme-alaba egin gaitu; horregatik, konfiantzaz, esan dezagun Kristok irakatsitako otoitza:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiogun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.

Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du. Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagnariora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Emaguzu, Jauna, orain hartu ditugun  
zure Gorputz eta Odol baliotsuez aurreratu diguzuna,  
zure jainkotasunaren betiereko gozotasunaz ase gaitezen.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## Pentekoste ondorengo III. ostiralean

# JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, egun honi dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

✠. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Senideok: Jesusen Bihotz guztiz santuaren eguna ospatzen du gaur Elizak, Jai honen pozean bildu gara geu ere elkarte honetan, Jaunaren maitasuna gogoratu eta eskertzeko. Jesusen Bihotza, izan ere, Jainkoak guztioi digun neurrigabeko maitasunaren ezaugarri da. Eta, era berean, gure bizitzako bidean beti gurekin dugun adiskide eta lagun onaren agerpen.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Presta gaitezen, fedez eta esker onez Jesusengan agertuko zaigun Jainko-maitasuna eta errukia ospatzeko:

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, bihozbera eta apala zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatutik eta heriotzatik ateratzen gaituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, neurrigabeko maitasunez maite gaituzuna: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko ahalguztiduna,  
zure Seme maitearen Bihotza gorestean,  
maitasunez gure alde gauzatu dituzun egintzak  
pozik ospatzen ditugu;  
egizu, har dezagula zeruko iturri horri gainezka darion grazia.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

*Edota:*

Oi Jainko, gure bekatuek zauritutako zure Semearen Bihotzean zeure maitasunaren ondasun neurrigabeak eman dizkiguzu; egizu, Kristori geure fedearen omena eskainiz, itzul diezaiogula ordain egokia ere.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

**Irakurgaiak**

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** «Gozoa eta bihotz-apala naiz». Hori esaten digu gaur Jesusek Ebanjelioan (*Eb.*). Gurutzeko apalkuntza isil-isilik onartzeraino iritsi behar zuen gozotasun eta bihotz-apaltasun honen bidez, Jainkoa Maitasuna dela erakusten digu; San Joanek bere gutunean esaten digu, «Jainkoak digun maitasuna honetan agertu zigula: bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen» (2. *ir.*). Baina lehenengo irakurgaiaren esaten zaigunez, Jainkoak prestatuak zituen gizakiak errebelazio hau onartzeko, maitasunez bere herria Egiptoko esklabotzaren zapalketatik askatzean (1. *ir.*).

**B urtean** Ebanjelioak Jesusen saihets irekia erakusten digu gurutzean (*Eb.*). Hori da Jainkoaren maitasunaren agerpenik gorenekoa. Hori baino lehenago, Oseas profetaren bidez hitz egin zion Jainkoak bere herriari benetako maitasun samurrez (1. *ir.*). Jainkozko maitasun samur hau, ordea, ez zegoen Abrahamen ondorengoei bakarrik zuzendua, Jesu Kristok bere odolaz salbatutako gizaki guztiak hartzen ditu. Hori da San Paulok aipatzen digun misterioa, fededun guztiekin batera ulertu ahal dezagula, «zein zabal eta luze, zein garai eta sakon den Kristoren maitasuna» (2. *ir.*).



C  
urtean

Antzekotasun harrigarria dago lehenengo irakurgaiaren eta Ebanjelioaren artean. Jainkoak Ezekiel profetaren bidez erakutsi zigun bere izaera eta jokabidea: galdutako ardiaren bila doan artzaina dela esaten digu, eta zauritua dagoena sendatu egingo duela (1. ir.). Jesusek Ebanjelioan irudi bera darabil eta bera dela Artzain Ona esaten digu (Eb.). Maitasuna den Jainkoaren erbelazio dugu Kristo, eta gurutzean maitasunez hiltzeraino bizi izan zuen maitasun hori. San Paulok diosku, Kristo gure alde hil zela eta «honela erakusten duela Jainkoak guri digun maitasuna» (2. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. IRAKURGAIK 3. liburuko 518-526. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Fede-aitormena

*Jarraian Sinesten dut esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## Jainkoaren herriaren otoitza

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## Eskerrak emateko ohikunea

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Senideok: Gu bekatutik atera eta bizi berrira bideratzeko bere burua heriotzaraino eskaini zuen Jesus Jauna geure batzarraren erdian dugu. Eska dezagun orain, Ogi Santuak ematen digun indarra. Gurtu dezagun pozez Jauna.

*Hiru erataraz egin daitezke esker-otoitza:*

1. *Salmo-kanta egoki batekin.*
2. *Gorazarre edota kantika batekin.*
3. *Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## **Jaunartzeko ohikunea**

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jainkoak bere maitasuna isuri digu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez; beraz, fedez eta itzaropenez, esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.*

*Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Zure maitasunaren sakramentu honek  
erakar gaitzala beti, Jauna, zure Semeagana,  
haren maitasunak beroturik,  
geure senideengan bera ikusten jakin dezagun.  
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

✠. Amen.

### **Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

### **Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Gorets dezagun Jauna  
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Jainkoaren Hitzak biltzen duen Eliza gara. Hitz hori hausnartzen dugu eta Hitz hori ospatzen. Horrek sendotzen du gure bizitza eta jartzen gaitu bidean fede sendoz ebanjelioa zabaltzeko.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Igandeko batzar honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera etorri zarena:  
erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik,  
zeruan poz handia izango dela esan zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko barkatzen diozuna:  
Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak  
barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitza.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitza egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko, zure Semearen beheratzeaz,  
jaso egin duzu eroria zegoen mundua;  
eman zeure fededunei egiazko pazko-poza,  
bekatuaren uztarpetik askatu dituzunek  
goza dezatela betiko zoriona.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Gaurko ebanjelioan, Jesus aldi berean agertzen zaigu: Jainkoaren Seme bezala –berak bakarrik ezagutzen du Aita– eta berari jarraitzera dei egiten digun bihozbera eta apala den Jauna bezala (*Eb.*). Lehen-irakurgaietan, Zakarias profetaren hitzetan, egunen batean «apal eta asto gainean» Jerusalem sartuko den erregea sumatzen dugu (*1. ir.*). Bataioaren bidez, Kristoren pazko-misterioan parte hartu dugunok, guregan bizi den Kristoren Espirituaren esanetara bizi behar dugu. Horixe gogoratzen digu San Paulok gaurko epistolari (2. *ir.*).

**B urtean** Gaurko ebanjelioan ikusten dugu Jesusen irakatsi eta mirariak giza taldeengan harridura sortzen dutela; eta, aldi berean, bere herrikideak gogortu egiten direla beren sinesgabatasunean (*Eb.*). Eta lehen-irakurgaiak gogoratzen digu, Jainkoaren herriak berdintsu jokatu zuela sarritan, bere Jaunarekin (*1. ir.*). Epistolari, San Paulok isilean diosku, Jaunagandik aparteko agerpenak jaso izan arren, ez duela horregatik bere makaltasuna gutxiago sentitzen. Makaltasun honek eramaten du oso-osoan Kristoren eskuetan jartzera (2. *ir.*).

**C urtean** Apostolu izatearen eskakizunak gogoratu ondoren, samariarren artean ebanjelioa iragartzera bidaltzen ditu Jesusek hirurogeita hamabi ikasle, era honetan geroago etorriko den jentil herrien ebanjelizazioa aurreratuz. Oso pozik itzuli zirela diosku San Lukasek (*Eb.*). Kristori eskainitako bizitza alaitasun-giroan murgiltzen da. Aurretiaz iragarrita zeukaten profetek, alaitasun-giro hau izango zela Mesiasen etorreraren seinale bat (*1. ir.*). Baina alaitasun horretara gurutzearen bitartez bakarrik irits daiteke. Kristauaren eta munduaren tartean Kristoren gurutzea dago, San Paulok epistolari harrotasunez iragartzen duen bezala (2. *ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 393-400. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagraiotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Ebanjelioa biziz, Jainkoaren onginahiaren irudi izatera deituak gara; izan ere, Jesusekin guztiz bat eginez gure bizitzaren alderdi guztietan ondu gaitzke. Bihotz-berritzeko gogoz gerturatuko gara laster jaunartzera.

*Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jaunaren otorduko mahaira hurbildu aurretik, esan dezagun elkaturik berak irakatsitako otoitza:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristo berpiztuaren Espirituaz, emaozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*



**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Mugarik gabeko zeure maitasunaren dohainez  
janaritu gaituzu, Jauna;  
egizu, lor ditzagula salbamen-fruituak  
eta bizi gaitzela beti Zu goستن.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

✠. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

✠. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

✠. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Igandean Jaunaren izenean bilduak gaude, senideok. Berak deitu gaitu. Beraren Hitza entzutean Jauna mintzo zaigu. Otoitz egiten dugunean, gurekin otoitz egiten du. Bidaltzen gaituela ere barneratu nahi dugu: misiora bidaliak gara, berri ona zabaltzera bidaliak.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Hurbil gaitzen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko, okerbidean dabiltzanei zeure egiaren argia agertzen diezu bide zuzenera itzul daitezen; egizu, beren burua kristautzat daukatenek utz dezatela izen horrekin bat ez datorren guztia eta bete izen horri dagokiona.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Gaurko ebanjelioan San Mateok parabolen kontakizunari hasiera ematen dio. Lehenengo eta behin, ereilearena entzungo dugu, Kristok berak ematen dion azalpenarekin: hazia Jainkoaren hitza da (*Eb.*). Lehen-irakurgaiak irakaspen horiek onartzeko prestatzen gaitu, ez ereilea aipatzen duelako, Jaunaren hitzak duen eragimena baieztatzen dutelako baizik (*1. ir.*). San Paulok, gutunean, Kristoren erospeneren alderdi kosmikoa goraiatzen du: bekatuak hondaturiko izadi osoa piztueraren aintzan parte hartzeko itxaropenez bizi da (*2. ir.*).

**B urtean** Jesusek bere ekintza jarraitzera bidaltzen ditu Apostoluak; bidaltzekoan emandako aholkuak eta nola jokatu zuten agertzen digu gaurko ebanjelioak (*Eb.*). Lehenengo irakurgaiak, Amosen profeta-bokazioaren kontakizunarekin, hauxe azpimarratzen digu: Jaunak berak nahi duena eta berak nahi duenean aukeratzen duela bere mezularia (*1. ir.*). Hurrengo sei igandeetan irakurriko den Efesoarrei egindako gutunak, Jainkoak gurekiko duen asmoa azalduko digu: Jainkoak, Jesu Kristoren bitartez, betidanik bere seme-alaba izateko aukeratu gintuen, bere aintzaren gorespenerako (*2. ir.*).

**C urtean** Jainkoarekiko eta senideekiko maitasunaren legea nola bizi behar dugun agertzen digu Samariar onaren parabolak (*Eb.*). Lehenengo irakurgaiak «bihotz-bihotzez eta gogo-gogoz» Jaunarengana bihurtzera dei egin ondoren gogoratuko digu, Jainkoaren legea ez dela gugandik kanpo dagoen zerbait: gutariko bakoitzaren barrua dago eta bete egin behar dugu (*1. ir.*). Gutunean, Kristoren irudia bere handitasun osoan marraztuko digu San Paulok: Jainkoaren Semea, «sorkari guztietan lehen-semea», gizadi berriaren hasiera izango da hilen artetik berpiztean (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 423-434. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Jesusen jokabidea erruki hutsa da, guri konfiantza eta sendotasuna ematen diguna. Berarekin bete-betean bat eginda biziz Erreinuaren testigantza ematera deitzen gaitu. Bere Hitzza eta Ogi santua partekatzeak laguntzen digu senitarte- eta karitate-giroan bizitzen. Gorets dezagun orain, esker onez.

*Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Guk ez dakigu Jainkoari zer eta nola eskatu; baina bihotzean dugun haren Espirituak otoitz hau jartzen digu ezpainetan:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

℞. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Zeure mahaian janaritu gaituzu, Jauna;  
egizu, misterio hauetan parte hartzen dugun bakoitzean  
sendo dadila gure salbamenaren emaitza.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Gorets dezagun Jauna  
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Hitzaren ospakizunean kristau taldea bildu gara. Baina Jaunarentzat bakoitza bat gara, bat maitea, izenez ezagutzen duena, zaindu eta babesten duena. Hala maite gaitu Jesusek. Igandeko batzar hau gerta dakigula egiazko bilgune: senti gaitezela deituak eta maitatuak, Kristo ari da bere artaldea biltzen.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Jesu Kristo, bekaturik ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.



*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Begira, Jauna, begi onez zeure zerbitzarioi eta emazkiguzu ugari zeure graziaren dohainak, fedez, esperantzaz eta maitasunez suturik zure aginduak betetzen erne iraun dezagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Munduak sufritzen duen gaizkiak harrituta uzten gaitu. Irakaren parabolaz, arazo hau apur bat ulertzeko giltza ematen digu Jesusek. Jainkoa ez da sarten gaizkia egiten dutenak berehala zigortzera; eta horrela jokatzeko du, ez bere maitasunak justizia egitea galarazten diolako, bakoitzak bere biziaren kontuak emateko ordua itxaroten duelako baizik (*Eb.*). Lehen-irakurgaiak antzeko gogoeta batera eramaten gaitu: Jainkoak gaizkilea zigortu egiten du, baina eramanpen handikoa delako, damutzeko aukera ematen dio (*1. ir.*). Epistolari, Espiritu Santua bataiatu bakoitzaren barnean ari dela esango digu San Paulok. Hura da gure bizitza Jainkoarengana bideratu eta gure alde otoitz egiten duena (*2. ir.*).

**B urtean** Artzainik gabeko artaldea bezala ikusten duen jendetzarekin errukituta agertzen zaigu Jesus gaurko ebanjelioan (*Eb.*). Jesus da benetako artzaina; ez bakarrik Jainkoak bere herriari agindutako errege-artzaina, Daviden semea (*1. ir.*), Jainko biziarekin bat den Israelen artzain bakarra baizik. San Paulok Jainkoaren egitasmoa azaltzen jarraitzen du: Gizaki guztiek, judu nahiz jentil, bere odolaz Jainkoarekin baketu gaituen Kristogan bat egiten dute. Berarekin eta beragan gorputz bat-bera osatzen dugu (*2. ir.*).

**C urtean** Bidez doan atzerritar baten itxuran agertzen zaion Jainkoari abegi on egiten agertzen zaigu Abraham gaurko lehenengo irakurra (*1. ir.*). Ebanjelioan Marta eta Maria dira Betanian duten etxean Jesusi abegi on egiten diotenak (*Eb.*). Bietan, Jaunaren ikustaldia bedeinkapen-iturri bihurtzen da onartu dutenentzat. San Paulok agertuko digu Kristorekin bete-betean bat eginda sentitzen dela, bere haragian haren nekaldia betetzeraino; eta berdin haren gorputza den eta iragartzen duen Elizarekin ere.

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 457-465. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Aitaren ontasuna sarritan aipatzen du Jesusek, eta maitasun neurrigabe horretatik ikasteko deia egiten digu. Itun berriaren ogia hartu aurretik, gurtu dezagun esker onez maitasunaren iturria den Jainkoa.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Eska diezaiogun zeruetako Aitari geure bekatuen barkamena eta eman diezagula bihotz zabala, guk ere geure zordunei barkatzeko:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiogun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin,  
eta zerutar misterioak ezagutarazi dizkiezunei emaezu,  
beren izate zaharra utzirik,  
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XVII. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Jesusen bila ibiltzen zen bere garaiko jendea: ikusteko gogoz, entzuteko irrikaz, ematen zien ogiaren gosez. Gu ere hala bildu al gara gaur? Bera hemen da gure erdian gu asetzeko, gu baketzeko, gu sendotzeko.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Aitor dezagun bekatari garela eta eska diezaiogun apalik barkamena zeruetako Aitari, guk ere geure senideei bihotzez barkatuz.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko, Zugan uste on dutenen babesa zarena,  
Zu gabe ez da ezer sendorik, ez ezer santurik;  
erakutsiezaguzu zeure erruki handia,  
Zu gidari eta erakusle zaitugula,  
zuhurtasunez balia gaitezen lurreko gauzez,  
eta oraintxedanik betiko ondasunei itsatsirik bizi gaitezen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Soroan aurkitutako altxorra deritzan parabola kontatuko digu gaur Jesusek. Aurkitu zuenak dena saldu zuen, soro hura erosteko (*Eb.*). Jainkoaren adiskidetasuna dugu altxor hori eta, geureganatzeko, hori egin behar dugu: dena utzi. Lehenengo irakurgaiak dioenez, gaztetandik ohartu zen Salomon erregea ez zegoela deus ere Jainkoagandiko jakinduria baino ederragorik (*1. ir.*). Jainkoak maite gaituela eta beraren Semearen irudiko izateko aukeratu gaituela esango digu San Paulok, eta aintzaz betetzen gaituela (*2. ir.*).

**B urtean** Ogi bizi-emaileaz Jesusek egindako hitzaldia eskaintzen digu San Joanek bere ebanjelioan (6. atalean). Horixe entzungo dugu bost igandez. Mendian ogiak ugaritu eta jendeari jaten nola eman zion kontatuz egiten duen sarrera entzungo dugu gaurkoan (*Eb.*). Horretako prestatuz, horren antzeko miraria, Eliseo profetak egina, kontatuko digu lehenengo irakurgaiak (*1. ir.*). Kristorekin gorputz bakarra egiten dugunez, eguneroko bizitzan batasun-misterio hori bizitzera deitzen gaitu San Paulok: «Eramazue elkar maitekiro» (*2. ir.*).

**C urtean** Otoitza zein indartsu den adierazten digute lehenengo irakurgaiak eta ebanjelioak. Abrahamek elkarrizketa zirraragarria du Jainkoarekin, Sodoma hiri lizuna salbatzeko eginahalak eginez (*1. ir.*). Adiskide gogaikarriaren parabola dakarkigu gaur ebanjelioak, hau erakusteko: etsi gabe egindako otoitzak beti ukitzen duela Jainkoa (*Eb.*). Bataioan Kristorekin hil eta piztu garela oroitarazten digu San Paulok: Jesusen gurutzean bekatuen barkamena lortu digu eta haren bizian partaide izatea (*2. ir.*).



*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 488-496. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Kristau-bizitza, ituna, komunioa, Jainkoarekin bat egitea da, bereziki. Baita batasun horren fruituak senideekiko zerbitzuan ematea ere. Mahai santuko ogia hartu aurretik, egin dezagun esker onezko otoitza.

*Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jesusek irakasten digunez, eska diezaiogun zeruetako Aitari, etor dadila beraren erreinua gure gizartera:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristok elkarren senide egin baitu bere gurutzeaz; adiskidetzearen ezaugarri, emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Eukaristiako sakramentua hartu dugu, Jauna,  
zure Semearen nekaldi-piztueren betiko oroigarri;  
berak neurrigabeko maitasunez eman digu dohain hau  
izan dakigula salbamenerako.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XVIII. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Gorets dezagun Jauna  
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Senideok: Jesusen Pazkotik berri on asko datorkigu kristauoi: egin dezagun Igandea ospatzean ahalegin berezia biziki parte hartzeko, adi egonez, arretaz erantzunez eta geuretik ipiniz, denontzat ospakizun pozgarria izan dadin.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Igandeko ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, gure bakea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat ogi egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia ematen diguzuna. Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Zatozkie lagun, Jauna, zeure zerbitzariei  
eta ager iezaiezu beti zeure bihotz ona otoizka ari zaizkizunei;  
eta egile eta gidari aitortzen baitzaituzte,  
biziberri ezazu etengabe eta zaindu  
Zeuk egina den mundu hau.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Jesusek, jendeaz errukiturik, ogiak ugaltu zituela kontatuko digu ebanjelioak (*Eb.*). «Egarri zareten guztiok, etorri ur bila. Jan ordaindu gabe. Entzudazue eta biziko zarete», esango digu Jainkoak Isaias profetaren bidez, lehenengo irakurraian (*1. ir.*). Salbamen-misterioaz esan duena burutzeko, Jainkoaren maitasunari gorazarrea egiten dio San Paulok bere gutunean: «Ezerk ere ez gaitu aldenduko Jainkoak Jesu Kristorengan agertu digun maitasunetik» (*2. ir.*).

**B urtean** Mendian ogiak ugaltzean, Moises berria bera zela erakutsi zuen Jesusek. Basamortuan goseak zegoen herriarentzat Jainkoak zerutik janaria bidaltzea lortu zuen Moisesek, lehenengo irakurraian entzungo dugunez (*1. ir.*). Ogi bizi-emailea emango digu Jesusek: bere burua. Eta sinesmenez jatera gonbidatuko gaitu (*Eb.*). Kristaua izaki berri dela oroitaraziko digu bigarren irakurraian. Kristoren ikasle izateko, uko egin behar dio lehengo bizierari, eta giza izaera berria jantzi: Kristo (*2. ir.*).

**C urtean** Ezaguna dugun gogoeta eginez hasten da lehenengo irakurraia: «Huskeria hutsa, dena huskeria da» (*1. ir.*). Horren antzeko hizkera darabil Jesusek ebanjelioan. Israelgo jakintsuaren gogoetak, itxuraz, ez du beste aukerarik eskaintzen. Jesusek, aldiz, gauzak nork beretzat pilatu nahi izatea gaitzesten du, eta Jainkoarentzat aberats ez izatea (*Eb.*). San Paulok dioenez, bataiatuak gizaki berriari dagokionez bizi behar du, Kristorekin hil eta piztu baita. Bizitzeko arrazoia ez du lurrean, Jaunaganantz baitoa (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 3.** liburuko 3-10. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagraiotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Denek onartu ez bazuten ere, fede harrigarritz gerturatu zen hainbat pertsona Jesusengana, Ebanjelioan zehar ikusten dugunez. Fedearen dohain eder hori eskatu behar dugu etengabe. Orain ere, Jauna gurtzean esan diezaiozun: «Sendotu, Jauna, gure sinesmena».

*Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Familia bereko anai-arreba garenez, esan diezaiogun elkarturik guztion Aitari:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristo berpiztuaren Espirituaz, emaozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

℞. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*



**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Zaindu ezazu beti, Jauna,  
zeruko ogiaz janaritu eta biziberritu duzun zeure herria,  
eta, guretzat duzun etengabeko arduraz,  
egin gaitzazu betiko bizirako gai.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XIX. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

✠. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

*Guztiak erantzungo dute:*

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Senideok: Itxaropenezko jaia dugu Igandea, Jainkoak gudan baduelako itxaropena, Erreinua eraikitzen kementsu ari gaitezen. Baita ere guk geuk Jainkoagan badugulako itxaropen sendoa gure bizitzan duen indar-ematean eta babesean.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garelako, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitezen.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren betea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behartsu egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera etorri zarena: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Jainko ahalguztidun betierekoa, Espiritu Santuak irakatsirik Zuri Aita esateko eskubidea eman diguzu; sendotu gure bihotzetan zure seme-alabatzako espiritua, agindu diguzun bizi betean sar gaitezen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Ebanjelioan Apostoluak izuturik ikusiko ditugu, Jesus Ahalguztiduna dela, Jainkoaren Semea dela, ohartzean (*Eb.*). Elias profeta ere izutua zegoen mendi santuan, Jainkoa Moisesi agertu zitzaion mendi hartan bertan Jauna sumatu zuenean (*1. ir.*). Oso berea duen gaia ukitzen du San Paulok bere gutuneko zati honetan: bere odoleko senideen, juduen, zoria. Jesusengan beren Salbatzailea ikusi ez badute ere, Jainkoaren promesa hartu zuen herria izaten jarraitzen du, eta haien artetik sortua da Kristo, Mesias (*2. ir.*).

**B urtean** Ogi bizi-emailea dugu Jesus, sinesmenez bera onartzean ez ezik baita Eukaristian ere. Irakaspen nagusi hau jaso behar dugu gaurko ebanjelioan (*Eb.*). Sinesmenak eta Eukaristiak berritu egiten dituzte gure indarrak etengabe Jainkoaganako bidean. Hala gertatu zitzaion Elias profetari, Jaunak aingeruaren bidez ogia bidali zionean, lehenengo irakurgaiaren entzungo dugunez (*1. ir.*). Giza izateari dagozkion bertuteak bizitzeko esango digu San Paulok. Espiritu Santuaren marka daramagunez, Jainkoaren antzeko izan behar dugu eta maitasunean bizi, Kristoren antzera (*2. ir.*). Aitagan, Semeagan eta Espirituagan bizi den kristaua adinako pertsona heldurik ez da.

**C urtean** Prest egoteko esango digu Jesusek ebanjelioa, beren jauna noiz itzuliko zain gauz erne dauden morroiak bezala (*Eb.*). Egipton ere gauz igaro zen Jauna ere lehenbiziko pazko-gau hartan, bere herria askatuz; hori orotaraziko digu lehenengo irakurgaiak (*1. ir.*). Gauz jalgi zen, atera zen, Kristo ere hilobitik. Hebrearrei egindako gutunaren zati bat irakurtzen hasiko gara gaur. Sinesmena zer den adierazi ondoren, lehenbiziko fededunek, Abrahamen ondoren, hitzemandako Lurraldera egin zuten ibilaldia adieraziko digu. «Jainkoaren adiskide» esaten dio Bibliak Abrahami, baita Islamak ere (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 3.** liburuko 34-43. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Jainkoaren errukia eskertzeko erarik bikainena, gu geu errukitsu izatea da, elkarren bizitza zaintzea. Eroriei eta sufritzen dutenei lagunduz betetzen dugu bizia zaintzeko betebeharrak hori. Gurtu dezagun orain, indartzen gaituen Jauna.

*Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

℞. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Hartu dugun sakramentu honek salba gaitzala, Jauna,  
eta sendotu zure egiaren argitan.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XX. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Gorets dezagun Jauna  
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Igandeko batzarrak argi adierazi behar du harrera oneko Eliza garela, inongo arrazoiengatik inor baztertzen ez duena, gu ere, garen bezalakoak izanik Jainkoak beti onartzen gaituela ahaztu gabe. Ekin diezaiogun ospakizunari bihotz zabalez.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.



*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko,

ondasun ikusezinak dituzu maite zaituztenentzat;  
piztu gure bihotzean zeure maitasunaren garra,  
Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,  
guk asma ditzakegunak baino handiagoak diren  
Zuk agindutako ondasunak irits ditzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** Ez da ohikoa, baina gaurkoan hiru irakurgaiak gai bera eskaintzen digute: judu-herriko ez diren guztiei Jainkoak luzatzen dien deia. Jainkoak, Isaias profetaren bidez dioena entzungo dugu lehenengo irakurgaietan: «Nire etxea otoitz-etxe da, eta hala deituko dute herri guztiek» (1. ir.). Ebanjelioan, berriz, emakume kanaandarraren fedea Jesusek nola goraipatu zuen entzungo dugu eta nola sendatu zion alaba (Eb.). «Israeldarren errebeldiari esker, zuek (judu ez zareten jentilok) errukia lortu duzue», dio San Paulok, nahiz eta aitortzen duen, Jainkoaren asmoaren arabera, israeldarrek dutela lehentasuna (2. ir.).

**B urtean** Juduen eztabaiden aurrean, Eukaristiari buruzko irakaspena zehaztuko du Jesusek gaurko ebanjelioan: Eukaristiaren bidez Jauna baitan sartzten gara eta bat egiten dugu berarekin, eta bizi-hazia ereiten du berak guregan (Eb.). Jainkoaren Jakinduriak eragiten digu, eukaristi otorduaren bidez, betiko otordua irrikatzera, lehenengo irakurgaietan entzungo dugunez (1. ir.). Eukaristia zehazki aipatu gabe ere, lehenbiziko kristau-elkarteek beren batzarrak nolako pozkarioz ospatzen zituzten sumaraziko digu bigarren irakurgaiak (2. ir.).

**C urtean** Jesusen aurrean jendeak nolako jarrera kontrajarriak izango dituen iragarriko digu Jesusek berak ebanjelioan: senitarte berean ere zatiketak izango dira Jesus dela-eta (Eb.). Horixe bera gertatua zen profeten aurrean; Jeremias profetak nolako erasoak jasan behar izan zituen kontatuko digu lehenengo irakurgaiak (1. ir.). Fedearen aurkako erasoak kemenez eraman dutenak gogoratzen ditu gutunak. Sendo iraun beharra dugu bekatuaren aurkako borrokan, «begiak Jesusengan jarririk», bera baitugu «sinesmenaren iturri eta betetzailer»; ohartarazi zigun berak odola isurtzeraino eutsi behar diogula geure sinesmenari (2. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 3.** liburuko 66-72. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Karitatea adoretzen eta itxaropena sendotzen duen fedea erein du Jainkoak gudan. Jesusekin bat egiteak Jainkoaren nahia betetzen laguntzen digu. Adora dezagun pozik Sakramentu santua.

*Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jainkoak, Espiritu Santuaren bidez, bere seme-alaba egin gaitu; horregatik, konfiantzaz, esan dezagun Kristok irakatsitako otoitza:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiogun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du. Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Jauna, hartu dugun sakramentuak  
fededunok Zurekin bat garela adierazten duen bezala,  
egin dezala Elizaren batasuna.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

*Guztiek erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Fede bera aitortzen dugunok, mahai berean elkartu gara Hitza entzutera eta Ogi santua partekatzera, Kristo gure Jauna aitortuz eta ospatuz; apostoluen oinarri gainean eraikitako Eliza gara, testigu izatera bidalia den Eliza. Senti dezagun elkertasunaren poza.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Jesu Jaunak igandea ospatzera dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Oi Jainko,  
gogo bateko egiten dituzu zeure fededunen bihotzak;  
egizu, maita ditzala zure herriak Zuk aginduak  
eta itxaro Zuk hitzemaña,  
mundu honetako gorabeheren artean,  
geure bihotza egiazko zoriona dagoen lekuan jar dezagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean** San Pedroren fede-aitorpena eta, ondoren, Jesusek hitzemandakoa, “zeruetako erreinuko giltzak” emango zizkiola, kontatuko digu ebanjelioak (*Eb.*). Itun Zaharreko liburuetatik hartutako irudia da giltzak emate hori, lehenengo irakurgaiak ikus daitekeenez (*1. ir.*). Bere herria gidatzeko zama Pedroren esku uzten zuela adierazi zuen horrela Jesusek. Salbamen-misterioaz egindako azalpena bukatzean, Kristoren maitasuna goraiatzen du San Paulok gutun honetan. Israel herriaren zoriaz egindako gogoetak burutzeko, gorazarre egiten dio Jainkoaren jakinduriari (*2. ir.*).

**B urtean** Eukaristiaz egindako hitzaldia zela-eta, Jesusen ikasle askok atzera egin zuen; baina egokiera izan zuen orduan Pedrok, berriz ere bere fedea baieستeko (*Eb.*). Hitzemandako Lurraldean sartu ondoren, halako fede-aitorpena eginga zuen Jainkoaren herriak, Jauna zerbitzatzeko erabakia oihukatu zuenean (*1. ir.*). Kristok bere Elizarekiko duen maitasunaren ezaugarri da, San Paulo dioenez, senar-emazteen arteko maitasuna. Kristoren maitasun hori, gurutzeraino eramana, eredu da gizakiok elkar nola maitatu behar dugun ikasteko.

**C urtean** Gizakiak oro Jainkoarekin bizitzera deituak direla dio Jesusek ebanjelioan, baina, hala berean, salbamena ez dagoela erabat betea. «Ate estutik sartzen saiatu» behar du norberak, hau da, bere buruari uko egiten eta besteen onerako ematen (*Eb.*). Jainkoaren asmoa gizaki guztiak biltzea dela dio profetaren testuak, irudi biziak erabiliz, eta horrela bere aintza agertzea (*1. ir.*). Gizakien arteko batasunaren ezaugarri izan behar du Elizak. Hebrearrei egindako gutunak dei egiten die kristau pertsegituei erasoak beraiek «zentzarazteko» direla pentsa dezaten, «Jainkoak seme-alabatzat tratatzen dituela» oharturik (*2. ir.*)



*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 3.** liburuko 95-102. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

## **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Fedeak laguntzen digu Jesusekin bat eginda bizitzen eta Jesus bezala besteentzat izaten. Jaunartzeak indar dezala gure espiritua Elizaren egintza horretan parte hartzeko: Berri Ona bazter guztietara eramateko. Eskertu dezagun, orain, dohaintzat ematen zaigun Jauna.

*Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Jainkoak bere maitasuna isuri digu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez; beraz, fedez eta itxaropenez, esan dezagun:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristok elkarren senide egin baitu bere gurutzeaz; adiskidetzearen ezaugarri, emaiozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*

**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Eraman gugan onez, Jauna, bere betera  
zeure errukizko salbamen-egintza;  
egin gaitzazu on-onak eta adoretu,  
gauza guztietan zure nahia bete ahal izateko.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA

### Hasiera

*Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:*

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:*

℟. Amen.

**Agurra** (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

*Zuzendariak herria agurtuko du:*

Gorets dezagun Jauna  
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

*Guztiak erantzungo dute:*

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

*Zuzendariak jarraituko du:*

Kristok deitu gaituelako gara kristau: Berari jarraitzera deitu gaituelako, hain zuzen. Baina bere deia eguneroko deia da, eguneroko bizitzan gauzatzen dena. Gaurko ospakizunak Jesusen aldeko aukera garbia egitera eragin gaitzala, prest egon gaitzela leialtasunerako.

### Damu-otoitza

*Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:*

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitezen.

*Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:*

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren betea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behartsu egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera etorri zarena: Erruki, Jauna.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77-78. or.).*

## Otoitza

*Gero zuzendariak esango du:*

Egin dezagun otoitz.

*Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.*

*Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.*

Zeru-lurren Jainkoa, Zugandik dator on guztia;  
sartu gure bihotzean Zuganako maitasuna;  
lot gaitzazu gero eta estuago Zeurekin,  
gure baitan indar dezazun on den guztia  
eta indartu duzuna arreta handiz zaindu.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

## Irakurgaiak

*Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:*

**A urtean**

Jesusek bere nekaldia iragarriko die ikasleei ebanjelioan. Pedrok burutik kendu nahi izango dio hori Jesusi, baina Jesusek haserre egingo dio, eta beren gurutzea hartu beharko dutela adieraziko die ikasleei, Jesusen jarraitzaile izatekotan (*Eb.*). Lehenengo irakurgaietan Jeremias profetaren atsekabea ikusiko dugu; Jesus oinazetuaren aurre-irudi (*1. ir.*). Kristauaren bizitza osoak «gurtza» izan behar du Jainkoarentzat: geure burua eskaini behar diogu Jainkoari oparizat, eta gure jarduera osoaz goretsi behar dugu (*2. ir.*).

**B urtean**

Moisesek hebrear herriari Jaunaren legea nola adierazi zion ikusiko dugu lehenengo irakurgaietan, lege hori betez bizi zedin (*1. ir.*). Garrantzitsuena zer den irakatsiko digu Jesusek ebanjelioan: ez da azaleko lege eta ohiturak zorrotz betetzea, ez baitu Jainkoak hori epaitzen, baizik eta «barrutik ateratzen dena». Hori da garrantzitsua (*Eb.*). Santiagoren gutuna irakurtzen hasiko gara gaur. «Jainko Aitaren aurrean benetako erlijioa hau da: premian daudenei laguntzea eta munduko gaiztakeriekin norik bere burua ez kutsatzea». Bizitza erabat aldatu beharra dakar kristau izateak, entzundako Hitza bizitzan agertzeko (*2. ir.*).

**C urtean**

Ebanjelioan ikusiko dugunez, apal izaten irakasten die Jesusek inguruan ditueni: otorduetan mahaiburuan ez jartzeko gomendatzen die, baizik eta lehen jarlekuak apalei, behartsuei, eskalei uzteko (*Eb.*). Lehenengo irakurgaiak ere apal izatera deitzen gaitu, «harroaren ezbeharrak ez baitu erremediorik» (*1. ir.*). Irteera liburuan aipatuak dauden mirariak gure artean Jainkoak berriro dituela dio gutunak, baina gu areago eramanez: «Jainko biziaren hiriraino sartu baikaitu, aingeruengana, Jesusengana» (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 3.** liburuko 122-129. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

*Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

### **Fede-aitormena**

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

*Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).*

### **Eskerrak emateko ohikunea**

*Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du herria:*

Jainkoaren seme-alaba izateak egiazko askatasuna ematen digu; maitatzeko askatasuna, bizia eskaintzeko eta beti itxaropentsu bizitzeko askatasuna. Eukaristiako Ogi santua hartu aurretik eskertu dezagun dohain miragarri hau.

*Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:*

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

## Jaunartzeko ohikunea

*Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:*

Familia bereko anai-arreba garenez, esan diezaiogun elkarturik guztion Aitari:

*Eta denek batera abestu edota esango dute:*

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

*Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:*

Kristo berpiztuaren Espirituaz, emaozue bakea elkarri.

*Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.*

*Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:*

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,  
hona munduko bekatua kentzen duena.  
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

*Eta, herriarekin batera, esango du:*

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;  
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

*Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:*

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.  
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

*Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.*



**Jaunartze ondorengo otoitza**

*Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:*

Mahai santuko ogia harturik,  
otoitz egiten dizugu, Jauna:  
maitasunaren agiria den janari honek  
sendo dezala gure bihotza  
geure senideengan Zu zerbitza zaitzagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

**Bedeinkapen-eskaria** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

*Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.*

*Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:*

Jaunak bedeinka gaitzala  
eta, gaitz guztietatik zaindurik,  
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

*Edota:*

Jaun ahalguztidun errukitsuak,  
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,  
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

**Azken agurra** *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

*Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:*

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

## ERANSKINAK

## I. HASIERAKO AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

*Zuzendariak*

1



∇. Jaun-goi-ko gu-re Ai-tak e-ta Je-su Kris-to gu-re Jau-nak



e-man di-e-za-gu-te-la be-ren gra-zi - a e-ta ba-ke-a.

*Denek*

℞. Be - dein - ka - tu - a Jaun - goi - ko -



a, Je-su Kris-to gu-re Jau-na-ren Ai - ta.

*Zuzendariak*

2



∇. Gorets deza-gun Jau - na, eta denok batean bedein-ka



de - za-gun ha-ren i - ze - na.

*Denek*

℞. Be-dein-ka-tu-a Zu, Jau-na, o-rain e-ta be-ti.

## II. DAMU OTOITZERAKO BESTE ERA BATZUK

### 1.

*Isilune laburra egingo da. Eta, denek batera, beren bekatuak aitortuko dituzte:*

Aitortzen diot Jainko guztiz ahaltsuari, eta zuei ere bai, ene senideoi, bekatu egin dudala gogapen, hitz eta egitez, eta eginbeharrak ez eginez; *Eta, bularra joz, esango dute:* bai, bekatari naiz. Horregatik eskatzen diet Andre Maria beti Birjinari, aingeru eta santu guztiei eta zuei ere bai, ene senideoi, otoitz egin diezaiozuela nire alde Jainko gure Jaunari.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

*Eta jarraituko du:*

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

℣. Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

### 2.

*Isilune laburra egingo da. Eta, elkarrizketa moduan esango da:*

℣. Erruki, Jauna. ℟. Bekatu egin dugu eta.

℣. Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona. ℟. Eta salba gaitzazu.

*Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

*Eta jarraituko du:*

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

℣. Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

*Damu-otoitz hau kantuz egin nahi bada:*

*Zuzendariak* *Denek*

∇. E-rru-ki, Jau-na. *R̄*. Be-ka-tu e-gin du-gu e-ta.

*Zuzendariak*

∇. A-ger-tu gu-ri, Jau-na, zeu-re bi-hotz o-na.

*Denek*

*R̄*. E-ta sal-ba gaitza-zu.

### III. FEDE AITORMENA

#### 1.

Sinesten dut Jaungoiko bat bakarra,  
Aita guztiz ahaltzua, zeru-lurren Egilea,  
ageri diren eta ez diren guztiena.

Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu Kristo, Jainkoaren Seme bakarra,  
mende guztiak baino lehen Aitagandik sortua.  
Jainkoagandik Jainko, argitik argi,  
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko;  
sortua, ez egin, Aitaren izate berekoa.  
Haren bidez dira eginak gauza guztiak.  
Gu gizakiongatik eta gu salbatzeko jaitzi zen zerutik.

*Ondorengo hitzetan, gizon egin zen arte, denak makurtu egingo dira.*

Eta, Espiritu Santuaren egitez  
Maria Birjinagandik gorputz harturik, gizon egin zen.  
Pontzio Pilatoren menpean gugatik gurutzeratua izan zen,  
oinazetan hila eta hobiratua.

Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Santuak esan bezala,  
 zerura igo eta Aitaren eskuinaldean jarririk dago.  
 Aintzaz etorriko da berriz biziak eta hilak epaitzera,  
 eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

Sinesten dut Espiritu Santua, Jauna eta bizi-emailea,  
 Aitagandik eta Semeagandik dena;  
 Aitarekin eta Semearekin batean agur eta gorespen berbera  
 hartzen duena eta profeten ahoz hitz egin zuena.

Sinesten dut Eliza: bat, santua, katolikoa eta Apostoluena.  
 Aitortzen dut Bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.  
 Itxaroten dut hildakoen piztuera  
 eta datorren munduko bizia. Amen.

## 2.

Sinesten dut Jainko Aita ahalguztiduna,  
 zeru-lurren Egilea.

Sinesten dut haren Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna,

*Ondorengo hitzetan, Birjinagandik jaio zena arte, denak makurtu egingo dira.*

Espiritu Santuaren egitez sortu  
 eta Maria Birjinagandik jaio zena;  
 Pontzio Pilatoren menpean nekaldia;  
 gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena;  
 infernetara jaitsi eta hirugarren egunean  
 hilen artetik piztu zena;  
 zeruetara igo eta Jainko Aita ahalguztidunaren  
 eskuinaldean jarririk dagoena;  
 handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

Sinesten dut Espiritu Santua,  
 Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna,  
 bekatuen barkamena,  
 haragiaren piztuera eta betiko bizia. Amen.

## IV. LETANIA ERAKO ESKER OTOITZAK

## 1. Aintza Zuri, Jauna

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Eskerrak ematen dizkizugu, Jaungoiko gure Aita,  
Biziaren ogia den zure Seme Jesu Kristorengatik.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

*Zuzendariak* *Denek*

∇. Ain - tza Zu - ri, Jau - na. ℞ Ain - tza Zu-  
 ri, Jau - na, e - ta es - ke - rrak Zu - ri!

Zuk beti prest dituzu guztiontzat  
 behar ditugun janari-edariak,  
 eta orain gertu daukazu guretzat  
 betiko bizia ematen duen ogia,  
 Jesu Kristo zure Semearen gorputz santua.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

℞. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

Elkarrekin jango dugun Eukaristiako ogia  
 gari-ale askotatik egina izan den bezala,  
 horrela gu ere, zure Eliza osotzen dugunok,  
 sinesmen eta maitasun berak bil gaitzala  
 lurraren alde batetik besteraino  
 zure Erreinuko batasunean.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

Eskerrak, bai, Jaungoiko gure Aita,  
baden, badatorren eta etorriko den  
zure Seme, Jesu Kristo, gure Jaunarengatik.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

## 2. Bedeinkatua Zu, Jauna

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Zuk egin duzun guztia  
gure eskuetan jarri duzu, Jauna,  
itxaro dugun lur berria bideratzen  
Zurekin batera lan egin dezagun.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

*Zuzendariak*



∇. Ho-rre-ga - tik, be-dein-ka - tzen zai-tu - gu:

*Denek*



✠. Be-dein-ka-tu - a Zu, Jau - na, gu-re Jain-ko - a!

Zure Seme Jesu Kristo eredu jartzen diguzu  
eta haren antzera hobeak izaten saiatzera dei egiten.  
Beraren bidez eta berarekin gizaki berri eginik,  
betiko biziaren betera eraman nahi gaituzu.

∇. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:

⌘. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

Zure Elizaren batasunean parte izatera  
deitu gaituzu,  
Zuk agindutako gizadi berria  
eraikitzen joan gaitezen.

∇. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:


⌘. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

### 3. Eskerrak Zuri, Jainko

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Eskerrak Zuri, Jainko gure Aita:  
zure Seme Jesu Kristo,  
Espiritu Santuaren egitez,  
gure giza haragiz jantzita bidali diguzu.  
Eta hura ikusirik,  
harengan Zu ikusi ahal izatea eman diguzu.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:*



∇. Ho - rre - ga - tik, bihotzez e - sa - ten di - zu - gu:



⌘. Es-ke - rrak Zu - ri, Jain - ko, gu - re Ai - ta!



Jesu Kristo, Gizaki berria, Espirituaren indarrez,  
on egiten, gaitzak hartutakoak sendatzen  
eta behartsuei Berri Ona hots egiten igaro zen.  
Eta guk, haren antzeko izanik,  
haren urratsei jarraitzea nahi duzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

Zure Semea guregatik heriotzara emanik,  
Espirituaren indarrez hilen artetik berpiztu  
eta diren guztien Jaun ezarri duzu.  
Eta guri berarekin betiko bizi ahal izatea eman diguzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

#### 4. Aintza Aitari

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Goresten eta bedeinkatzen zaitugu, Jainko gure Aita,  
zure Seme Jesu Kristoren bitartez, Espiritu Santuaren batasunean.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*



∇. Es-ke-rrak Zu-ri, Ai-ta o-na.      ✠. Ain-tza Ai-ta - ri, e -



ta Se-me-a - ri, e - ta Es-pi - ri - tu San-tu - a - ri!

Zugandik hartu ditugun gauza on guztiengatik  
eta gizakiari eman diozun Espirituaren dohainarengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Lurra emankor egiten duten eguzki eta urarengatik,  
eta gizakiaren lanak sortu dituen  
tresna eta aurrerapen guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Gure familietako maitasunarengatik  
eta giza bizitzako lagunarte-  
eta solidaritza-ezaugarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren irudiaren arabera,  
gu zure antzeko nahi gaituzulako:  
santu, on-on eta errukitsu,  
eta hori lortzeko ematen dizkiguzun grazia guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristo gurutziltzatu eta berpiztuarengan,  
gure atsekabe eta pozaldiek, gure ezbehar eta garaipenek,  
argi berria hartzen dute.  
Salbamen-misterio horren ondorio pozgarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren erospenari esker,  
 izadi osoa erdiminetan dago  
 zeru berriak eta lur berria itxaroten.  
 Zure dohain dugun betiko biziaren itxaropenak  
 guregan eta munduan eragiten dituen  
 giza aurrerapide eta maitasun-egintza guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

## 5. Gora Zu: I

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Jesus Jauna,  
 Zu zara ilunpeak desegiten dituen Argia.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

*Zuzendariak* *Denek*



✠. Ho - rre - ga - tik e - sa - ten di - zu - gu: ✠. Go - ra

Zu, go-ra Zu, be - dein-ka-tu-a Zu, es-ke-rrak Zu - ri!

Zu zara gezur-bidetik aldentzen gaituen Egia.

✠. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure pausoak zuzentzen dituen Bidea.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gosea asetzen duen Ogia.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gaitzak sendatzen dituen Osasuna.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure heriotza garaitzen duen Bizia.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure betiko bizia ziurtatzen duen Piztuera.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

## 6. Gora Zu: II

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Zuri, Jesus Jauna, zuzentzen dizugu gure otoitza.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:*



∇. En - tzun, Jau - na, gu - re go - ra - pe - na.

*Denek*

Go - ra Zu, be-dein-ka-tu-a - Zu, es-ke-rrak Zu - ri.

Zu zara Aitaren Seme bakarra.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, gizakia salbatzearren, giza izaera hartu zenuen,  
Birjina Amaren sabelean.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, heriotzaren eztena garaiturik,  
zeru-erreinuko ateak ireki dizkiezu fededunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu, Aitaren eskuinaldean jarririk zaude,  
betiereko aintzan.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Sinesten dugu berriz etorriko zarela  
diren guztien Epaile eta Jaun.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zatoz eta lagundu  
zeure odol baliotsuaz erosi dituzunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

⌘. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Egizu, betiereko aintzan  
zure santuekin batean bizitzera irits gaitetzela.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

⌘. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

## 7. Zorionekoak, Jauna

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Senideok: Egin diezaiogun otoitz  
gizaki guztien atsedean eta poz-iturri den Jesus Jaunari,  
eskerrak emanez,  
bere erreinuko mahaira deitu gaituelako,  
eta gizadi osoaren alde eskatuz.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

Zuzendariak Denek

∇. Zo-ri-o-ne-ko-ak. ⌘. Zo-ri-o-ne-ko-ak, Jau-

na, zu-re e rrei-nu-ko ma-hai-ra dei-tu-ak.

Jesus Jauna,  
Zuk gurutzean zeure burua eskaini zenuen,  
gizon eta emakume guztiok bizia izan dezagun;

eta lantzak zulatutako zure bihotzetik  
 odola eta ura isuri ziren, handik zure Eliza sor zedin;  
 egizu Eliza hau santu eta errugabe  
 eta zure maitasunaren ezaugarri bizi.

✠. Zorionekoak.

**✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, gure bake eta adiskidetzaille,  
 gurutzeaz gorrotoa ezereztu egin zenuen  
 eta, zeure baketzearen bidez,  
 guztiok gizaki berri egiten gaituzu:  
 isur ezazu zeure Espiritua  
 gizadi osoa familia bat bera izan dadin  
 maitasunean eta batasunean.

✠. Zorionekoak.

**✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, gure bizi eta berpizte,  
 nekatu eta lanpetuentzat atsedean zara Zu:  
 bakardadearen, oinazearen  
 edo etsipenaren zamapean daudenek aurki zaitzatela,  
 zure erreinuaren pozean guztiok elkaturik,  
 esker onez gorets zaitzagun.

✠. Zorionekoak.

**✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, gizaki guztien argi eta salbamen,  
 Zuk dituzu betiko biziaren hitzak  
 eta Zu zaitugu zorion betera daraman bidea;  
 egizu, fedea argiturik biziaren hitz horiek entzun ditzagula  
 eta gure bizitzan zintzo bete.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, Zuk heriotza ezereztu eta bizi berria ematen diguzu:  
eskerrak ematen dizkizugu,  
bizi-egarria ase ahal dezagun  
bizia zabaldu eta laguntza ematen diguzulako;  
egizu, biziera berri batean ibil gaitezela.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, zeru-lurrek goستن zaituzten Jauna:  
har ezazu gaur,  
elkarte honek, Eliza osoarekin batean,  
gogoz eta pozik eskaintzen dizun gurtza:  
eta egizu, orain lurrean gurtzen zaitugunok  
gorets zaitzagula betieran zeruan.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

## 8. Bai zorionekoak

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Senideok: egin diezaioGUN otoitz ogi bizia den Jesu Kristori.

—Kristo, itun berri eta betikoaren apaiz, gurutzean opari ezin hobe eskaini zenion Aitari: erakutsiezaguzu opari bera Zurekin eskaintzen.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*



*Zuzendariak* *Denek*

✠. Bai zo - ri - o - ne - ko - ak. ✠. Bai zo - ri - o ne - ko - ak, Jau-  
 na, zu - re e - rrei - nu - an o - gi - a jan - go du - te - nak!

—Kristo, bakearen eta zuzentasunaren Errege handi, Zuk ogi-ardoak sagaratu zenituen zeure eskaintza adierazteko: ogi beraz janaritzen dituzunak, zure gorputzean bat egin ditzazula.

✠. Bai zorionekoak.

✠. **Bai zorionekoak, Jauna,  
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, zerutik jaitsitako mana, zure Gorputz-Odolez janaritzen duzu Eliza: janari honen indarrez ibil gaitzela.

✠. Bai zorionekoak.

✠. **Bai zorionekoak, Jauna,  
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, ikusten ez zaitugun gure otorduko mahaikide, atarian zaudena eta ate joka ari zarena, guregana etor zaitezela eta elkarrekin jan dezagula.

✠. Bai zorionekoak.

✠. **Bai zorionekoak, Jauna,  
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

## 9. Kristo, zeruko ogi

*Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:*

Kristok bere afarira dei egiten digu guztioi,  
eta afari horretan bere Gorputz-Odolak ematen dizkigu,  
munduaren bizirako. Otoitz egin diezaigun berari.

*Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:*

Zuzendariak Denek

∇. De - nok ba - te - an es - ka - tzen di - zu - gu. ☩. Kris -  
to ze - ru - ko o - gi, e - ma - gu - zu be - ti - ko bi - zi - a.

—Kristo, Jainko biziaren Seme, eukaristi afaria zure oroigarri egiteko agindu zenigun: emaguzu zure misterioak zintzo ospatzea zure Eliza aberats dadin.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

☩. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, Goi-goikoaren apaiz bakar, apaizei eman diezu sakramentuak ospatzeko eginkizuna: egizu, beren bizitzan bete dezatela, sakramentuetan egiten dutena.

∇. Denok batean eskatzen dizugu:

☩. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko mana, ogi beretik jaten dutenak gorputz bat egiten dituzu: indar itzazu, Zuregan sinesten dutenen artean, bakea eta elkertasuna.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko sendagile, zeure ogiaz hilezkor egiten gaituzu, eta piztueraren itxaropenez betetzen: emaezu gaixoei osasuna eta bekatariei uste ona.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**


—Kristo, berriro etorriko zaren Errege, zure heriotza adierazten duten misterioak, Zu etorri arte ospatzeko agindu diguzu: egizu, Zuregan hildako guztiak zure piztueran piztu daitezela.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:


✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

## V. BEDEINKAPEN ESKARIA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

**1** *Zuzendariak*




**∇.** Jaunak bedeinka gai-tza - la e-ta gaitz guztietatik




zaindurik eraman gaitzala betiko bi - zi - ra. **R̄.** A - men. *Denek*

**2** *Zuzendariak*



**∇.** Jaun ahalguztidun erru-ki-tsu-ak, Ai-tak, eta Semeak, eta



Espiritu Santuak, bedeinka gaitzala e-ta zain-du. **R̄.**A-men. *Denek*

## VI. AZKEN AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUA

**1** *Zuzendariak*

*Denek*  $\Psi$ . Zo - az - te Jau-na - ren ba-ke - an.

$\Re$ . Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

**2** *Zuzendariak*

$\Psi$ . Zo - az - te Jaunaren i - ze - ne - an e - ta ba - ke - an.

*Denek*

$\Re$ . Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.





